

URIARTE, ZUBIMENDI Y CÍA.  
PORLAN-FABRIKA  
FÁBRICA DE CEMENTO  
URIARTE, ZUBIMENDI Y CÍA.



(Santi Yaniz)

Gipuzkoa  
Zestoa  
Bedua

Beatriz Herreras Moratinos

XIX. mendeko bigarren erdialdean, Ibañarrietako tuparri mendiguneak eta Aizarna aldeko lignito-meatzeak (Urola Beherea) modu jarraituan ustiatzeari ekin zioten. Ingurune txiki horretan bi lehengaiok ageri zirenez, kalitatezko porlan hidrauliko naturala fabrikatu zuten. Hasiera batean, harria harrobian bertan eraikitako labe periodikoetan kiskaltzen zuten; birrintzeko, berriz, Alzolaras, Lasao, Iraeta eta beste hainbat burdinolatako instalazioak baliatzen zituzten. Emaiza oso onak lortu zituzten, eta, harrobiak zein meategiak hurbil zeudenez, garraio-kostuak ere txikiak ziren; horregatik, fabrika-instalazioak eraikitzen joan ziren. Horretaz gain, Zumaiako kaia ere gertu zegoen, amaitutako produktua igortzeko erabiltzen zutena; hortaz, ingurune hau urte gutxian porlan-gune handi bilakatu zen. Fabrikok lehengaietatik gertu ipini zituzten, herriguneetatik kanpoko landa-guneetan. Hala, 130 urte luzean jarduera erabakigarria izan zen ingurune honetako ekoizpen-historian; lehen industrializazioaren eta paisaia-eraldaketaren eragile eta protagono-

En la segunda mitad del siglo XIX las canteras del macizo margoso de Ibañarrieta y las minas de lignito de la zona de Aizarna, en el Bajo Urola, empezaron a explotarse de manera continuada e industrial. La coincidencia en esta pequeña área geográfica de ambas materias primas hizo posible la fabricación de cemento natural hidráulico de calidad. En un primer momento la piedra se calcinaba en hornos periódicos contruidos al pie de la cantera y la trituración aprovechaba las instalaciones de ferreñas como Alzolaras, Lasao o Iraeta. Los buenos resultados obtenidos y los reducidos costes de transporte, gracias a la cercanía de las canteras y minas, hicieron que fueran levantándose instalaciones fabriles. Además, la proximidad del puerto de Zumaia, utilizado para la expedición del producto finalizado, ayudó a convertir la zona en pocos años en un enclave cementero. Estas fábricas se ubicaron cerca de las materias primas, en ámbitos rurales fuera de los núcleos urbanos. Durante ciento treinta años fue una actividad decisiva en la historia productiva de la zona, responsable y protagonista de la primera indus-

nista, hain zuzen. Hainbatetan erabat hondaturik baldin badaude ere, harrobiek, garraio-sistemek edota fabrikek historia garaikiderako material berriak eskaintzen dizkigute.

Lortutako produktuari porlan natural edo Zumaiaiko porlan deitzen zioten, eta tuparriak kiskalita lortzen zuten; operazio horretan lignittoa erabiltzen zuten erregai gisa, gehigarririk gabe, eta, birrindu ondoren, hauts fina lortzen zuten. Itsasoko urari erresistentzia handia zion; bai tuparriaren kalitateagatik, bai Aizarna inguruan ateratako lignittoa erregai gisa erabiltzeagatik (izan ere, lignito horren errautsak, silize askokoak, porlanetara eransten zituzten eta, hala, ez zen degradatzen). Hasiera-hasieratik, porlan natural horrek oso harrera ona izan zuen, minutu bakar batzuetan gogortzen baitzen; hortaz, oso egokia zen portuetan erabiltzeko.

Itxura denez, soldadu ingelesek Lehen Gerra Karlistan erabili zuten Donostiako defentsak egiteko. Ondoren, gauza bera egin zuten Iraetako (Zestoa) fanderian lan egiten zuten langile ingelesek.

Porlan horren fabrikazioak garrantzi handia izan zuen xx. mendeko lehen herenean. Gerora, beherakada izan zuen, oso nabarmena 36ko Gerra Zibilerako. Portland zementua ekoizteari ekin ziotenean, ordea, gainditzen zaila zen lehia hasi zen; ondorioz, inguru honetako fabrikatzaile nagusiek biak ekoizten hasi behar izan zuten, 30eko hamarkadatik 50eko hamarkada erdialdera arte. Hala, ia mende betez bertako industriaren jatorri eta oinarri izan zen produktua egiteari utzi behar izan zioten. Ekoizpen-eredua aldatu ez zutenak, azkenik, erabat desagertu ziren. Hala, lignito-meatzeak ere itxi egin zituzten 50eko hamarkadan, fabrikak ixten zituzten heinean. Adibide bat jartzearen, hamarkada horretan Cementos Alberdi SA enpresak porlan naturala ekoizteari utzi eta Portland zementua egiteari ekin zion. Ondorioz, 1953an fabrika bakarra zegoen; Beduakoa, alegia. Baina lantegi hori 1972an itxi zuten; izan ere, auto-

trialización y de la transformación decisiva del paisaje. Las canteras, los sistemas de transporte, las fábricas, nos presentan, en ocasiones ya en ruinas, nuevos materiales para la historia contemporánea.

El producto resultante, denominado cemento natural o de Zumaia, era obtenido por la calcinación de las margas, en la que se utilizaba como combustible el lignito, sin ningún aditivo, para posteriormente proceder a su molienda, de la cual se obtenía un polvo fino. Estas cualidades de resistencia al agua de mar se derivaban tanto de la calidad de las margas como de la utilización como combustible del lignito extraído en las cercanías de Aizarna, cuyas cenizas, con gran cantidad de sílice, se incorporaban al cemento y evitaban su degradación. Desde los primeros momentos el cemento natural resultante gozó de gran aceptación, pues fraguaba en unos minutos, lo que lo hacía idóneo para su utilización en los puertos.

Todo apunta a que fue durante la Primera Guerra Carlista cuando soldados ingleses lo utilizaron en el sistema defensivo de Donostia-San Sebastián. Luego hicieron lo propio los operarios ingleses que trabajaban en la fondería de Iraeta en Zestoa.

Su fabricación tuvo un gran desarrollo durante el primer tercio del siglo xx, para iniciar después un declive que antes de la Guerra Civil del 36 era ya muy acusado. El inicio de la producción de cemento portland conllevó una competencia difícil de superar y obligó a los fabricantes más importantes de la zona a simultanear ambas producciones desde la década de los años treinta hasta mediados de los cincuenta, teniendo que abandonar después de casi un siglo el producto que había sido origen y soporte de la industria de la zona. Aquellos que no cambiaron su producción vieron cómo paulatinamente se iba reduciendo su producción hasta desaparecer totalmente. Durante la década de los años cincuenta las minas de lignito se fueron cerrando al mismo tiempo que las fábricas. Por poner un ejemplo, es en esa década cuando la empresa Cementos Alberdi S.A. abandona la producción de cemento natural



Lantegiaren ikuspegia: Gorakako erakina; bertan gordetzen zen ehorikoa, deskarga eremuaren, siloen eta langile-zainaren etxearen alboan. (Santi Yaniz)

Vista de la fábrica: Edificio en altura donde se ubicaba la molienda junto con el área de descarga, los silos y la casa del capataz. (Santi Yaniz)



Bistako adreiluarekin apaindutako arku termalaren xehetasuna. (Santi Yaniz)

Detalle del arco termal con decoración de ladrillo visto. (Santi Yaniz)

bidea eraiki zutenean harrobia eta labe-instalazioaren zati bat okupatu zuten. Cementos Portland fabrikak, berriz, 80ko hamarkada erdialdera arte jarraitu zuen martxan. Egun erabat eraitsita dago.

Enpresa garrantzitsu haietako askok hamarkadak daramatzate abandonaturik, eta denborak, jakina, hondatu ere egin ditu. Instalazioak erabat utzita daude, noiz irakurriko eta interpretatuko zain: Agoteko Corta y Cía fabrikaren tximinia, Iraetako fabrika, edo Narrondon eraiki zituztenak. Azken hori aukeratu zuen Eusebio Gurrutxagak, hain zuzen, errepidearen eta ibaiaren arteko meandroa baliatuta. Hortxe daude, era berean, San José fabrikaren hondakinak, edota Sansineneak errepide ondoan eraiki zuen lantegiarenak. Gaur egun duten egoera kontuan hartuta, arkeologia-teknikak baliatu beharko lituzkete fabrikok aztertzeko.

Bedua izeneko tokian, Urola ibaiaren estuarioan, bizkor gogortzen zen porlan naturaleko fabrika egin zuten 1885ean; hau da, Uriarte, Zubimendi y Cía lantegia. Toki horren ezaugarriak eta baldintza estrategikoak kontuan izanik, iraganean ere erreterria bat egona zen bertan. Hain zuzen ere, ibaian gora zeuden burdinoletatik burdina ekartzen zuten bertara, eta Bizkaiko minerala ere horraxa iristen zen. Era berean, ontziolak ere ezarri zituzten inguru horretan. Industria-merkataritzako orientazioa amaiturik eta egiturak ere abandonatuta, denboraz kanpoko industria-paisaia sortu da, eta saihestezina izan da berriro ere natura nagusitzea.

Fabrika oso hondatuta dago gaur egun, baina sektore honek XIX. mende amaieran izan zuen modernizazio-parametroei jarraiki altxatu zuten. Eraikitze orduan, Europako arlo honetako hainbat fabrika bisitatu zituzten, eta 1896an labe-bateria berria eraikitzeari ekin zioten (PÉREZ ISCAR, 1901, 141). Sistema berriko labeetan kiskalitako harria bi-

para dedicarse al portland. En 1953 tan sólo quedaba una fábrica en activo, la instalada en Bedua, y ésta cesa su actividad definitivamente en 1972 debido a la construcción de la autopista, que ocupó su cantera y parte de la instalación de los hornos. La fábrica Cementos Portland, por su parte, ya totalmente derribada en la actualidad, se mantuvo en activo hasta mediados de la década de los ochenta.

Muchas de aquellas importantes empresas llevan, por lo tanto, décadas abandonadas y sin duda el tiempo ha hecho mella en ellas. Sus instalaciones en ruinas, mutiladas, esperan ser leídas e interpretadas: la chimenea de la fábrica Corta y Cía. en Agote; la fábrica de Iraeta, o las que se levantaron en Narrondo. Éste fue el emplazamiento elegido por Eusebio Gurruchaga aprovechando un meandro entre la carretera y el río. También existen restos de la fábrica San José, en el mismo lugar, o la que levantó Sansinenea también junto a la carretera. Dada su situación actual, serán las técnicas arqueológicas las que tengan que ocuparse de su análisis.

En el lugar conocido como Bedua, en el estuario del río Urola, se levantó en 1885 la fábrica de cemento natural de fraguado rápido de Uriarte, Zubimendi y Cía. Este emplazamiento, por sus características y condiciones estratégicas, había sido elegido ya en el pasado para establecer en él una rentería. Era el lugar obligado a donde llegaba el hierro procedente de las ferrerías que existían río arriba, e igualmente llegaba hasta allí el mineral procedente de Bizkaia. En la zona también hubo instalado un astillero. Finiquitada la orientación industrial-comercial y abandonadas las estructuras, el paisaje industrial resultante se nos presenta como un espacio atemporal en el que inexorablemente vuelve a imponerse el orden natural.

La fábrica, muy deteriorada, se edificó dentro de los parámetros de la modernización que conoció el sector a finales del siglo XIX. Para su construcción se visitaron fábricas del ramo en Europa y en 1896 se comenzó la construcción de la nueva batería de hornos (PÉREZ ISCAR, 1901, 141). La piedra calcinada en los hornos del nuevo sistema

rrintzeko makinara eta Smith errotetara eramaten zuten Decauville sistemako bagonetetan, 50 cm zabaleko bidean barrena. Errota horietan kiskalitako harria zuzenean sar zezaketen labean, birrintzeko makinatik igaro gabe; gainera, bertan nahi zuten tamainan galbahetzeko ehuna ere egokitu zezaketen. Zakuak errotan bertan betetzen zituzten zuzenean, eta, ondoren, gabarrak sabaiepean kargatzen zituzten plano inklinatua erabiliz. Upeletan kargatzeko garabi bat erabiltzen zuten. Gabarra bakoitza, ondoren, Zumaiako kaira eramaten zuten. Fabrikan 60 zaldiko lurrun-galdara eduki zuten 1896ra arte; Iraetan ur-jauzi hidraulikoa ere baliatu zuten, fabrikan indarra 80 zaldi gehiagorekin handitzen zuen motor elektrikoa aplikatuz. Harrobiak Ibañarrietan zeuden, eta bertan ateratako harria, ondoren porlana egiteko erabiltzen zutena, aireko kable bitartez eramaten zuten kiskaltzeko labeetara. Esandako kableak 1.400 metroko bidea egiten zuten.

Etxe honek Ertxina mendian bost lignito-meatze ere bazituen. Ateratako minerala mehatze-sarbidetik Aizarnazabalgo errepedieraino eramaten zuten, aireko kable bidez; handik labeetara, berriz, gurdiak erabilita. Bertan egiten zuten porlanak ospe handia zuen, eta XIX. mende amaieran sari eta aipamen garrantzitsuak eskuratu zituen. Corta y Compañía (Agote), SA Cementos Uriarte y Zubimendi (Bedua), Juan Alberdi (La Carmen-Arrona), eta SA Cementos de Zumaya y Electricidad (Txiriboga) enpresek bat egitea erabaki zuten 1922an, porlan naturalaren ekoizpena

era conducida por medio de una vía de 50 cm de ancho en vagonetas sistema Decauville a la machacadora y a los molinos Smith. Estos molinos tenían la ventaja de que la piedra calcinada se podía introducir directamente al horno sin necesidad de someterla a la machacadora, pudiendo adaptarse a los mismos la tela para tamizarla al tamaño deseable. Los sacos se llenaban directamente desde el mismo molino para inmediatamente después cargar las gabarras bajo techado por medio de un plano inclinado. Cuando se cargaban en barriles se usaba una grúa. Cada gabarra era después conducida al puerto de Zumaiá. Hasta 1896 la fábrica contó con una caldera de vapor de 60 caballos de fuerza y también aprovecharon un salto hidráulico en Iraeta aplicando un motor eléctrico que aumentaba la fuerza en 80 caballos más en la fábrica. Las canteras de donde se extraía la piedra para la fabricación de cemento estaban en Ibañarrieta y la piedra extraída era conducida hasta los hornos de calcinación gracias a un cable aéreo que cubría una distancia de 1.400 m.

La firma era también propietaria de cinco minas de lignito en el monte Ertxina. El mineral extraído era conducido desde la bocamina hasta la carretera de Aizarnazabal por medio de un cable aéreo y en carros desde este punto hasta los hornos. Su cemento tuvo un gran prestigio, y era habitual que a finales del siglo XIX consiguiera importantes premios y menciones. En 1922 las empresas Corta y Compañía (Agote); S.A. Cementos Uriarte y Zubimendi (Bedua); Juan Alberdi (La Carmen-Arrona) y S.A. Cementos de Zumaya y Electricidad (Txiriboga) decidieron unirse



Uriarte, Zubimendi y Cía Lantegiaren makineriaren xehetasuna. (Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza)

Detalle de la maquinaria de la Fábrica Uriarte, Zubimendi y Cía. (Departamento de Cultura. Gobierno Vasco)



Gutun paper honetan, lantegiaren instalazioaren irudi idealizatua ikusten da. Astean, zati batez galdu den labe-multzoa dago. (José M.º Izagaren Bilduma)

Papel de cartas donde se observa una imagen idealizada de la instalación fabril. Al fondo, la batería de hornos parcialmente desaparecida. (Colección José M.º Izaga)

pena merkaturatzeko helburuz. Xede horrekin, Cementos de Zumaya SA sortu zuten. Edonola ere, kide bakoitzak bere independentziari eutsi zion, beren fabriken ekoizpena kudeatzeko sozietate gisa. Lehenengoek Zumaian zuten lonja baliatuta eta eraberrituta, biltegitratzeko prozesua eta salmenten kudeaketa bertan zentralizatu zituzten; hala ere, mozkinak banatzean, bakoitzak merkaturatutako kopurua hartzen zuten aintzat. Merkataritza-harremana zen, ez enpresen bat-egitea. Talde honetan sartu ez zen bakarria Nuestra Señora de los Dolores de Arrona fabrika izan zen, eta 1930ean atek itxi behar izan zituen.

Beduako porlan-lantegiaren fabrika- eta transformazio-instalazioak pixkanaka hondatzen joan dira abandonatu zizutenetik. Halere, lantegi haien hondarrek protagonismoa aldamiratzeko dute paisaia berria oraindik ere. Adierazi bezala, 70eko hamarkadan Bilbo-Behobia autobidea eraiki zutenean, labeen ia instalazio guztiak desagertu ziren. Bidez beste aldean, bokalearen ondoko eremu txikian, kaiak zeuden —egun oso egoera txarrean, ia desagerturik—, baita ekoizpen- eta biltegitratze-instalazioak ere. Oinplano angeluzuzeneko nabea da, solairu bakarra eta bi isurialdeko estalkia dituena. Teilatu-gailurra kosta-lerroarekiko paraleloan dago. Oso eraikin itxia da, eta dituen bao urriak irregularki banatuta daude. Burudun arkuak eta argizuloak dauzka, eta albo-fatxadetan, berriz, arku termalak. Solairudun eraikinari atxikita, nabeak siloak eta langileburuaren etxebizitza hartzen ditu. Aldameneko solairudun eraikina garaierako industria-arkitekturarekin zuzenean lotuta dago, grabitateko erabiliz jarduten zuen ekoizpen-sistema baliatzen zuen aldetik. Oso gaizki zaindurik badago ere, oinplano angeluzuzena dauka, eta hiru solairu gehi sotoa ditu. Lehenengo solairuan turbina eta birrintzeko makinak zeuden, bai eta Dana hodia ere, kargategitik gertu. Goiko solairuan errotak zeuden. Eusteko egitura, berriz, karga-murruetatik abiatzen da. Bi isurialdeko estalkia du, eta teilatu-gailurra fatxadarekin perpendikularrean dago. Zorua porlanezkoa da, eta burudun

para comercializar su producción de cemento natural. Con esta finalidad constituyeron la S.A. Cementos de Zumaya, manteniendo cada uno de sus componentes su independencia como sociedades que gestionaban la producción de sus respectivas fábricas. Aprovechando y reformando la lonja que los primeros tenían en Zumaia, se centralizó en ese lugar el almacenamiento y la gestión de la venta de los productos, si bien los beneficios se repartían conforme la cantidad que cada uno ponía en el mercado. Era una vinculación comercial, no una fusión de empresas. La única en no incorporarse al grupo fue la fábrica Nuestra Señora de los Dolores de Arrona, que tuvo que cerrar en 1930.

Las instalaciones fabriles y de transformación de la cementera de Bedua han sufrido un progresivo deterioro desde que fueron abandonadas. Pero todavía el poder de la ruina sale a nuestro encuentro y reclama su protagonismo en el nuevo paisaje. Como ya se ha indicado, tras la construcción de la autopista Bilbao-Behobia en la década de los setenta la casi totalidad de la instalación de los hornos desapareció. Al otro lado del camino y en el pequeño espacio existente junto a la desembocadura se extendían los muelles —ahora en muy mal estado, casi ya desdibujados— y las instalaciones productivas y de almacenaje. La nave es de planta rectangular, de una sola altura con cubierta a dos aguas y caballete paralelo a la línea de la costa. Es un edificio muy cerrado donde los escasos vanos se distribuyen de manera irregular. Hay arcos adintelados, óculos y en las fachadas laterales arcos terminales. Adosada al edificio de pisos, la nave alberga los silos y la vivienda del capataz. El edificio de pisos contiguo se vincula de manera directa a la arquitectura industrial en altura, conforme al sistema productivo que operaba en su interior utilizando la gravedad. En muy mal estado de conservación, presenta planta rectangular de tres alturas más sótano. En el primer piso se encontraban la turbina y las machacadoras y el tubo Dana cerca del cargadero. En el piso superior estaban ubicados los molinos. La estructura sustentante partía de

sabaiak dauzka. Argiztapena goiko solairuetan dauden hiru bao-ardatzen bidez lortzen da; bao horiek zirkulu erdikoak eta eskartzanoak dira. Apaingarri handirik ez dauka: zokaloa, porlan-xaflazko bazterrak eta berresitzeak eta albo batean ageri den inskripzioa, «Sociedad Uriarte y Zubimendi y Compañía» dioena. Beduako porlan-fabrikaren industria-ondarearen barruan ez daude ekoizpen-instalazioak bakarrik; izan ere, Ertxinarentz eta Ibañarrietarantz ere zabalzen da, multzo baten tankeran. Eta, industria-sektore hau osorik interpretatzeko, multzo gisa interpretatu behar da.

#### BIBLIOGRAFIA

IBÁÑEZ GÓMEZ, M.; TORRECILLA GORBEA, M.<sup>a</sup> J.; ZABALA LLANOS, M.; IRAZUSTA REZOLA, J., 1999 • PÉREZ ISCAR, I., 1901 • URDANGARIN, C.; IZAGA, J. M.; LIZARRALDE, K., 2000, 93-105 • URDANGARIN, C.; IZAGA, J. M., 2001, 51-77.

muros de carga. Se cubre a dos aguas, con caballete perpendicular a la fachada. El suelo es de cemento y los techos adintelados. La iluminación se logra gracias a tres ejes de vanos de medio punto y escarzos en los pisos superiores. No cuenta con elementos decorativos importantes, tan solo zócalo, esquinales y recercos de vanos de placado de cemento y una inscripción lateral desdibujada en la que puede leerse «Sociedad Uriarte y Zubimendi y Compañía». El patrimonio industrial de la fábrica de cemento de Bedua no se limita a las instalaciones productivas, sino que se extiende hacia Ertxina y hacia Ibañarrieta como un todo: sólo así este sector industrial puede ser completamente interpretado.

#### BIBLIOGRAFÍA

IBÁÑEZ GÓMEZ, M.; TORRECILLA GORBEA, M.<sup>a</sup> J.; ZABALA LLANOS, M.; IRAZUSTA REZOLA, J., 1999 • PÉREZ ISCAR, I., 1901 • URDANGARIN, C.; IZAGA, J. M.; LIZARRALDE, K., 2000, 93-105 • URDANGARIN, C.; IZAGA, J. M., 2001, 51-77.